

- [illegible]

## AURKIBIDEA

- 1 Gai orokorrak, aurkezpena eta helburuak
- 2 Udalaren aurkezpena
- 3 Lan-taldearen aurkezpena
- 4 Lurralde tailerra
- 5 Bigarren jardunaldiaren aurkezpena
- 6 Arraterako ideiak
- 7 Ondorioak

### 1 Gai orokorrak, aurkezpena eta helburuak

Arrateko Plan Bereziaren inguruko jardunaldiak pasa den urtarrilaren 25ean eta Otsailaren 1ean gauzatu ziren 18.00tik -20.00ra. 65 pertsona inguru bildu ziren bi egunen artean, udal teknikariak barne, Debemen eta Debegesako teknikariak barne eta udaletxean dauden partidu politikoetatik, ordezkari edo zinegotzi bat bakoitzetik gutxienez. Gehiengoa jardunaldi bietara joan zen. Etorritakoen artean batik bat jabeak edota pertsona interesatuak izan ziren, bai lurjabetza bategatik, bai negozioa edo iharduera bategatik edota elkarre batean interes zuzena dutelako Arrateko espazioarekiko.



*Urtarrilak 25eko LURRALDE TAILERRA. Arrate inguruari buruzko beste jardunaldi bat ere izan zen.*

Jardunaldi hauek konplementatu egiten dute martxan dagoen Plan Bereziaren partizipazio prozesua (elkarteei eta interesdunei elkarriketa pertsonalak, lan taldea, ingurumen komisiorekin bilerak, etab.) eta orokorrean publiko guztiari zuzenduak zeuden, nahiz eta etorritako pertsona gehienak lan taldeari lotuta dauden.

Jardunaldiaren helburuak honakoak ziren:

OB1. Publikoari orokorrean Plan Bereziaren hasieraz ezagutaraztea.

OB2. Gaur arte eginiko dokumentuen edukiaz ezagutarazatea, bai Arrateko esparruan baita inuguran eta osotasunean baita.

OB3: Informazioa eta proiektuak biltzea Plan Berezirako.

OB4. Iritzia bultzatzea gai batzuen inguruan, memoria historikoaren garrantziaz, Ixua eta Arrate ibi batez lotzearen beharraz ala ez, Ixua eta Arrate arteko olgetarako leku eta espazioen distribuzioaz eta erabileraz.

Urtarrilaren 25eko sesioan (lurralde tailerra) laugarren kapituluan islatzen diren lurraldearen inguruko aspektuei buruz hitzegin zen. Otsailaren 1eko (Arraterako ideiak) sesioan, berriz, Arrate inguruko erabilera ludiko eta olgetarako erabilera eta espazioen inguruan hitzegin zen. Ondorioak seigarren kapituluan islatzen dira.

Horretaz gain inkesta bat gauzatu zen, inkesta kualitatiboa, parte hartze jardunaldiekiko paraleloki. 55 pertsonak eman zioten erantzuna eta horko emaitzak dokumentu honetan jasotzen dira baita.

**Eman iritzia Arrate, Urko, Akondia eta Kalamua hobetzeko**

Eibarko udala Arrate, Santa Kurutz eta Kalamua Babesteko eta Zaintzeko PLAN BEREZIA idazten ari da; zure iritzia eta ideiak Eibarko esparru hau hobetzeko erabilgarri izango dira.

**\*Obligatorio**

**Eibarren bizi zara? \***

Elige

Bai, Mandiola Ballen, Arrate Auzoan, Gorosta Ballen edo Aginagan bizi naiz.

Bai, Eibarren bizi naiz, baina Arrateko ingurutik kanpo.

Ez, ez naiz Eibarren bizi.

☐ Urko mendia. ☐ Ixua jatebxea.

*Ideiak eta ekarpenak jasotzeko INKESTA KUALITATIBOA. Jardunaldien osagarria.*

## 2 Udalaren aurkezpena.

Jardunaldiei hasiera Jon Iraolak (udaleko ingurumen zinegotziak) eman zien aurkezpen hitz labur batzuekin, ingurumen sailaren izenean, etorritakoei ongi etorria emanez eta Plan Bereziaren garapen markoa laburki azalduz, baita lan taldearena eta Jardunaldien eduki eta helburuena ere.

## 3 Lan-taldearen aurkezpena.

Jarraian Plan Berezia idazten duen taldeak aurkezpen txiki bat egin zuen azalduaz zein den Planaren eremua, HAPOak dionarekiko baldintzatuta dagoela eta zein den araudi sektoriala azalduaz, mugitzeko eta aldatzeko dagoen gaitasuna eta Plan Bereziak izango duen edukiera azalduz, oinarrian honako puntuetan zentratuz:


- Urko, Akondia eta Gararagoitxi zonaldeetan ingurumen hobekuntza ekintzak.
- Ixua-Usartza, Santa Kurutz eta Arrate-Olabe zonaldeetan olgetarako lekuen erabileren eta ihardueren erregulazioarekiko ekintzak.

Nahiz eta lehendabiziko diagnostiko bat eta zirriborro bat egin den Plan Bereziaren inguruan, non jada bildu egiten diren ekintza orokor batzuk, jardunaldiak erabiltzen dira tresna gisa diagnostiko hori indartu eta sendotzeko, baita Planean azkenean jasoko diren edukien perfilak hobeto konkretatu eta definitzeko.



Bestetik, partehartzaileei lan taldearen sorreraz informatu zitzairen baita eginiko gainontzeko ekintzen berri eman (bakarkako elkarrizketak, inkestak...) eta garatzen joango direnen berri baita.

## INKESTAREN ERANTZUNAK JATORRIAREN ARABERA



- Bai, Mandiola Ballen, Arrate Auzoan, Gorosta Ballen edo Aginagan bizi naiz.
- Bai, Eibarren bizi naiz, baina Arrateko ingurutik kanpo.
- Ez, ez naiz Eibarren bizi.
- Sí, vivo en Mandiola Balle, Arrate Auzoa, Gorosta Balle o en Aginaga Auzoa.
- Sí vivo en Eibar, pero fuera de esta zona de Arrate.
- No vivo en Eibar.

*57 PERTSONEK erantzun dute inkesta. Gehienak eibartarrak dira, baina ez dira Arrate inguruan bizi*

### 4 Lurralde tailerra.

Eginiko aurkezpen barneratzaileen ondoren, tailerra gauzatu zen lurralde aspektuei dagokionez zentratuta.

Lehenbizi, bere balio paisajistikoengatik balio eta oniritzi gehien duten zonaldeak identifikatzen saiatu zen, baita ingurumen balioak, ostalaritza, olgetarako, kultural, etab. ondoren esparruaren hobekuntzen inguruan hitzegiten amaitzeko.

### Gune baliotsuenak:

Partehartzaile talde ezberdinek honakoak goraipatu zituzten:

- Urko, Akondia y Garagoitxiren **balio paisajistikoak**, baita abelzaintza eta ardizaintzaren garrantziaz hauek ongi mantentzerako orduan.
- Egun dauden **olgetarako zonaldeak**, Ixua jatetxea adibidez, Usartzako zona, Santa Kurutz, Santutegi ingurua eta Arrateko behatokia.
- **Zenbait ibiek duten interesa**, haurdun daudenen pasioa adibidez baita memoria historikoari loturik dauden ibilbideak.



## Zeintzuk dira hobetu beharko liratekeen gauzak?

Jarraian jaso egiten dira, eremu espazialean banandurik, jasotako iritzi eta proposamen esanguratsuenak, baita Plan Bereziarekiko ondorioztatu daitezkeen ondorio iritzi nagusiak:



Eremu honetan zeintzuk dira zuretzat arazo garrantzitsuenak?

## LUR JABEA KONTUAN HARTUZ KUDEAKETA EGIN

Hobetu beharreko aspektuen inguruan batek baino gehiagok ikusten zuten lurren jabeekin kontuan hartzea ekintzak gauzatzeko garaian. Honakoa, maiz plazaratu zen, Plan Bereziaren jarraipenean jabeen partaidetzarekin kontuan izan behar dela (lan taldean parte hartuz eta baita komisioren jarraipenean).

## AKONDIA ETA GARAGOITXI/ BIDEAK EGOERA ESKASEAN

Bere balio paisajistikoa oniritzen da dituen bistengatik. Bideen egoera txarraz men egin zen sarritan (zorua, garbitasuna, sastrakatzeta) eta seilaleztapenaren beharraz. Bideen trazadura baserrietatik zertxobait aldentzearen garrantziaz hitzegin zen, bertan bizitzen badaude, eurretatik aldentuz, batik bat Pagolatxabolan, bertan bizi diren egunerokotasuna ez oztopatzeke.

Plan berezirako:

- Esparruaren barruan diren ibien katalogoa, hobekuntzak eginaz: zorua, seilaleztapena, nasaitzea edota hobekuntza puntualak.
- Egun dauden iturrien errehabilitazioa eta txukuntzea.
- Ibien mantentze lan ohikoak.

## **USARTZA**

Usartza inguruan ere proposamen ezberdinak egin ziren, udal lursailetan hobekuntzak eginaz, iturria konponduz, haurrentzat jokoak baliabidetuz...Jardunaldietan Usartza baserriko jabe bat egon zen. Orokorrean adostasun handia egon zen Usartza Akondiaruntz hasten diren mendi ibien jatorritzat hartuz eta horreko duen garrantziaz.

Ez zen, ostera, ostalaritza erabileren inguruan adostasunik egon, gehiengoak larregi daudela aipatuz.

## **IXUA-ARRATE BIDEA**

Errepideak arriskua dakar zenbait gunetan eta Plan Bereziaren aurreko faseetan alternatiba ezberdinak erabili dira esku artean. Adostasuna dago Ixuatik Usartzara doazen asfaltatutako eta hormigonatutako bideak eta pistak mantentzearen alde. Hortik aurrera gehiengoak zera dio Akondia eta Pagolatxabola bidea jarraitzea, handik haurdun daudenen bidearekin lotu eta Olabeko zelaiaren atzetik, Krabelin inguratuz, Arratera heltzearen alde.

Baita ere, bidearen nasaitze lanak aurrekikusten eta eskatzen dira, gune konkretutan. Batek aipatzen du errepidea argiztatzearena. Orokorrean, bide berriak egiteren aldeko apostua, atzera botatzen dira, batik bat, horrek jabe partikularren lur batzuen desjabetzea badakar.

Plan berezirako: Hiru ekintza kontuan izan beharrekoak:

- Ixua-Usartza ibiaren hobekuntza, motordun ibilgailuen limitazioa aztertuz, kontuan izanik errepidetik dutela alternatiba garbia.
- Usartzatik doan ibiaren txukuntzea, Akondia ermitatik pasatuz eta Pagolatxabolatik pasatuz, haurdun daudenen ibiarekin bat egin arte (Akondia igoera). Aurrerapenean aztertutako alternatiben artean bakarra da desjabetzea suposatzen ez duena.
- Errepidean hobekuntzak, GFArekin elkar lanean, bera baita errepide honen jabe eta kudeatzailea. Euretako bat, honakoa da, Olabetik Akondia bidegurutzerara doan bidearen alboan espaloia egitearena, paraleloki (300m inguru), jabetzak kontuan izanda, noski.

## **IXUA JATETXEA**

Oso mirestua da, duen kolapenagatik eta egiten duen ostalaritza zerbitzuagatik. Ihardueren artean oneztuenetakoa da, gehienbat Arraterekin konplementatu egiten delako, eta Markinara bidean bidegurutzean egotearen garrantzia dela medio. Maizterrari luzatu egin zaio 2017ko ekainerarte. Ondoren, badirudi, iharduerarekin jabeak jarraituko duela, nekazalturismoa gehituz eta jatetxea eta taberna mantenduz. Orain dela gutxi erabileraren handitzea eskatu da formalki.

Plan Berezirako honako ekintzak kontuan hartu behar dira:

- Gaitasuna aztertu. Handitzean lagundu eta nekazalturismoaren eta ostalaritzaren arteko beregituratzean lagundu. Handitze lan moderatu batzuk arautu.
- Bidegurutzearen seinaleztapena hobetu, errepide mailan, limitazio soinu banda batzuk ezarriz baita semaforo bat ahalbidetuz keinukari gisa.
- Jabetzarekin adostasuna egonez gero Iturri bat ahalbidetu sakonera dagoen putzutik ura hartuz.
- Aparkalekuak hobetu, Ostalaritzarako zuzenduaz baita Urkoruntz mendi ibilbideak egitera doazenendako.

## SANTA KURUTZ

Bere olgetarako erabilera onartzen zaio. Potentziatu beharra ikusten da. Egin berrako ustezko ekintzen artean honakoak proposatu ziren, behatokia, haurrentzat jolasak eta aparkaleku "arin" bat. Bestalde, ez dago argi zein den eskolentzat erabilerarik aproposena. Lurjabetza pribatua da.

Plan Berezirako:

- Egonaldi zonaldea / behatokia ermitaren inguruan.
- Ibietan eta zoruetan hobekuntzak sarrera-irteerei dagokionez, baita aparkaleku hobekuntzak.
- Eskolaren egoera aztertu eta jabeekin haren irteera/erabiliera adostu.

## KALAMUAKO BABESLEKUA.

Tomas Meabe babeslekua, bere egunean zena (egun hondarrak). Eibar Kirol Elkartearen jabetza. Badira beste zenbait babesleku, mantendu eta birgaitu beharrekoak. Ez dago garbi, tailerren ondorioz, zein behar duen izan gaur egunean bere mantentzeko eta erregulatzeko irizpidea.



*TOMAS MEABE ATERPETXE zaharraren argazkia. Eskuinaldean, beste babesleku bat, gaur egunean. Bere berrerabilera/mantentzea/atontzea bultzatu behar da.*

Plan Berezirako: Aztertu beharra dago bere gaur egungo egoera eskasaren zergatia, bere jabeekin haren erabilera eta funtzioa berrikusi eta mendizaletasunarekin duen lotura eta erlazioa beraztertu. Paisaia eta bestelako erabilerak, ekintzak eta lanak adostu hauek berreskuratzeko.

## OTRAS PROPUESTAS:

Garraio publiko gehiago bultzatu, partzela publikoetan zuhaitzi berezkoak landatu eta dirulaguntzak eskuratu partzela pribatueterako, Akondiak trintxerak berreskuratu...

## ABELZAINZA

Jardunaldian puntualki aztertu zen. Egun dagoen bezala uztea aurreikusten da. Ardizaintzarekin batera paisaia mantentzen dute, batik bat Akondia eta Garagoitxi.

Plan Berezirako: Planak ez du gaitasuna abelzaintza erregulatu eta arautzeko, baina planteatzen diren ekintzak, bateragarriak behar dute izan abelzaintzaren mantenuarekin.

### **EHIZA**

Iritzi ezberdinak daude. Arriskua eta zarataren aurkako posizioak daude, animaliak izutu eta ernegatu egiten dituztelako. Badira, oster, beste asko ehiza ez dela debekatu behar diotenak, usadioa baita, sustraitua eta ehizariak inguruarekiko errespetu osoa dutela diotenak, konplementagarria izanik.

Plan Berezirako: Plan Bereziak ez du berau erregulatzen. Sektoriala da berau erregulatzen duen araudia eta hori dela eta aurreikuspen guztiak ildo hortatik ikusi beharra daude, edozein dela hartu beharreko neurriaedo erabakia.

### **MOTOR IBILGAILUAK ETA QUADAK.**

Zoruak eta ibiak hondatzen dituzte, zarata eta zalaparta sortuz. Abelzaintzarekin eta medizaletasunarekin talka egiten dute. Udaletxeak pistetatik kanpo ibiltzea debekatua du. Batzuk diote hortik at debekatzea ere behar lukeela. Horretaz gain, ez dela erregulatutakoa betetzen.

Plan Berezirako: erregulazio sektoriala aztertu eta gainontzeko neurririk behar den aztertu. Bi neurri legoke:

-Zehaztu ze ibietatik ahal duten Quadek ibili eta ze ibietatik ez, ibi katalogoa egin, eta horretaz gain, seinaleztatu.

### **MANTENTZE ETA GARBITZE LANAK**

Jardunaldietan adostasun osoa egon zen garbitasunaren inguruan, kontserbazioaren inguruan, mantentzearen inguruan, baita zaborren jasotzearen kudeaketaren inguruan (azken honetan apur bat gutxiago). Honako aspektu hau zehatzago azaltzen da Arraterako ideiak 6.puntuan.

Jardunaldieraren amaierari eman zitzaion etorritakoeri eskerrak emanaz bere presentziagatik eta hurrengo jardunaldirako, Otsailak 1erako alegia, gonbitea eginaz, jardunaldi osoa Arrateren inguruan bira egingo duela azalduz.

## **5 Bigarren jardunaldiaren aurkezpena**

Bigarren jardunaldia Arrateren inguruan izan zen bere osotasunean. Hasierako azalpenean lehendabiziko sesioaren kontzeptu batzuk gogora ekarri ziren, aurrekoan izan ez ziren pertsona berri batzuk baitzeuden.

Baita ere, Andirauk eskatuta, 120 bat argazki inguru plazaratu ziren, non bertan ikusten ziren Arratek egun duen egoeraz, non bertan garbitze eta mantentze lanak falta direla garbi ikusten den.

Kontserbazioaren aspektu honek berebiziko garrantzia du, gehien aipatutako kuestio bat izan zelarik jardunaldietan, danon ahotan ibiliz, eta Arratek hortarako duen komisiok letra

larriz jaso beharra du berau konpontzeko, nahiz eta egia esan, ez den Plan Berezi bat behar kuestio hau arautu eta erregulatzeko.


## 6 Arraterako ideiak

Jarraian bi tailer gauzatu ziren, bata euskaraz 19 partaiderekin eta beste bat gazteleraz 24 partaiderekin. Horretaz gain, beste 10 pertsona bildu ziren udal teknikari, tekniko erredaktore eta laguntzaileen artean.



*Otsailak 1eko ARRATERAKO IDEIAK TAILERRA.*

Tailerretan jerarkizazioa prozesua jarraitu zen. Hasiera batean partaide bakoitzak, era bakarrean, bere Arratekiko ideia plazaratzen zuen, ondoren, binaka, launaka etab. Hausnartuz eta eztabaidatuz, batzuk alboratu eta beste batzueri lehentasuna emanez. Zehatzago ikus daiteke [jarraitutako metodologia lehen eranskinean eta seigarren eranskinean Arrate zonarako eginiko proposamen guztiak islatuta](#). Honen garrantzia ez da jerarkizazioaren emaitza aportatutako ideiak baizik.



Guziten artean honako proposamenak dira esanguratsuenak:

### **GARBITASUNA / ZAINITZA ETA MANTENTZE LANAK:**

Partaideek gehien aipatutako gaia da. Jardunaldiak balio izan dute, arazo hau plazaratzeko argi eta garbi, berau lehendabiziko diagnostikoan etzelarik detektatu. Dena dela, garbi dago, fronte egin behar zaiola eta soluzioa eman.

Mantenu eta garbitasun lanak behar dituzte, honakoek: bai hiri altzariteriak (mahaiak, jarlekuak, haurren jokoak, parrillak, bainuak...) baita udalaren jabegoan dauden partzelak ere (sasitzak, sastrakak, lepatuak...) Honen ildotik, honako proposamenak jaso ziren:

- Arrateko guarda pertsonaren ezagutza eta ekarpena , bere figura berreskuratuz, zaintza eta informaziorako, baita garbitze eta mantenu lanak zehazteko, eskala txikian.
- Udal brigaden partaidetza, eskala handiago batean, garbitasun lanak eta baso kudeaketaren inguruan, guardaren lanak indartuz, programa baten baitan, jarraipen bat eginez ingurumen sailak zuzendua.

Plan Berezirako: Ez du Planaren erregulazioa behar, mantentze lan ohikoen ekintzak behar baititu soilik, baina bai komisioren jarraipena beharko duela izan, egiten dela bermatzeko. Ez da behin betiko onarpenaren zain egon behar garbitasun, mantentze eta kontserbazio lanak egiteko.

### **KOMUNEN BIRGAITZEA ETA ARRATE IRRATIA:**

Komun publikoak kokatzen dira bertan, Arrate Irratia eta terraza-parking moduko bat, zona horatan. Tailerrean argi gelditu zen komun publikoen egoera tamalgarria baita Irratiaren iharduera aktiboa eta bertan jarraitzeko asmoa, urte luzez, entzule asko dituen iharduerarekin.

Plan Berezirako: Arrate Irratiaren inguruko birgaitzea aurreikusi behar da baina baldintza honakoak kontuan izanaz:

- Eraikinaren egoera aztertu eta jabetzarekin adostu.
- Birgaitze lanek komunak berritzu beharra aurreikusi behar dute, baita Irratiaren instalakuntzak eta goikaldeko terraza, egoteko/aparkatzeko gune bat bezala ikusiaz, gaur egungo kota garaieran edota aparkalekuaren maila berean.
- Irratiaren jarraipena bilatu behar da, nahiz eta apala izan, entzule asko baititu eta ekarpen asko baitakartza egunerokotasunean.
- Estetikoki konpondu beharra dago egungo aparkaleku/biltegi zonalde hori, baita bere sarrera ere, benetan espazio hori benetan beharrezkoa baldin bada.
- Funtzionalki beharrezkoa baldin bada, Irratiaren instalazioak apur bat handitzea aztertu behar da, jabetzak eta erabiltzaileek hala iritzi eta beharrez gero.
- Antenaren mantentzea eta kokapena ontzat ematen da, posible delarik bertatik gotik, bolumen beritik, Irratira sarrera egitea, baina betiere kota maila horren gainetik bolumen berriak ekidituz.



*ARRATE IRRATIA PBan inguruaren mantentze-lanak eta berrikuntza aztertuko dira.*



### HAUR JOLASEN HOBEKUNTZA:

Bi zona daude haur jolasekin:

- Santutegiaren alboan, eliza eta Kantabria artean.
- Gurutzera bidean.

Gai hau erlazionatuta dago Arrateko garbitasunaren, zaintzaren eta mantentzearen zioarekin.

- Santutegiaren alboan: haurren jolasak hobetu eta birkolokatzeko beharra ikusten da, batik bat, bere kokapena arriskutsua baita kotxeak direla eta, asteburuetan elizaurrea itxi eta kotxeak derrigortu egiten baitira eliza atzetik pasa araztera, haurren jolasen albotik pasaraziz.

Bestetik, helduak edota gurasoak egoteko zona bat eskatzen da, haur jolas hauei lotuta, edota beste kokapen batean delarik.

Plan Berezirako: Aztertu egongo da bidearen desbideratzea, baita haurren jolasen birkokapena eta baita gurasoentzat edo helduentzat egoteko zonalde bat sortzeko asmoarekin, egokitasuna bilatuz.



*HAUR JOKOAK* Kotxe mugimendua frontoiaren eta jolas-gunearen artean eliza aurrea oinezkoentzat jartzen denean. PBan jokoan lekualdaketa aztertuko da.


### **KRABELIN SUSPERTU:**

Jabetza pribatua dela ohartarazten da. Horretaz gain, ideia batzuk sortzen dira Krabelin berriz zabaltu dadin, batetik adibidez memoria historikoaren museoa bertan zabaltu dadin proposatzen da eta beste ideia anitz ere sortzen dira, iharduera onargarri ezberdinak proposatuz, konpatibilitate baten barruan, betiere.

Plan Berezirako: Erabilera zabalagoa eman eta segregazioa edota banatzea ahalbidetzea. Handitze lanak era txiki batean baimentzea, baita reedifikazio total edota partziala ahalbidetzea.

### **ERABILERA ANITZAK GAUZATZEKO ERAIKIN BERRIA:**

Parte hartzaileen artean asko agertu den gaietako bat. Ingurua berriz sustatzeko beharra ikusten da eta erabilera anitzarako eraikin berria aukera bat bezala ikusten da Arrate erakargarriagoa izan dadin. Erabilera, ekintza eta kirol ezberdinetaz hitzegiten da, frontoia, futbito kantxa, probatokia, bolatokia...Aukeren artean eraikin berria Koloniaren atzean kokatzea proposatzen da, garaiera eta kota diferentzia aprobetxatuz, inpaktua ahalik eta gutxiena izan dadin bilatuz. Probalekuaren zonaldea errespetatzea eskatzen da baita, beste toki batzuk okupatu daitezkeen eskatzen delarik, ez Arrateko belardia, nahiz eta beste batzuk probalekua toki berri batera eramatearen aldekoak diren, bolatokiaren inguruan antzerako zerbait proposatu zelarik. Gai berez, delikatu da, kontuan izanik holako eraikin berri batek izan dezakeen inpaktua Arraten kontuan izanda. Eraikin hau Arraten barneratzeak bere zailtasunak dakartza ezen irisgarritasuna eta topografia zailtasunak baititu. Guztira, 1.000-2.000 m<sup>2</sup> lur okupazioa aurreikusten da, bere iharduera eta egokitasuna bermatzeko, Arrate bezalako inguru batean barneratzea nahiko zaila suertatzen delarik.



*Erabilera anitzarako gunearen kokapenen aukerak. Neurrizkoa eta topografian ondo egokitua egon behar den bolumena izan behar da.*

Plan Berezirako: Aztertu egin beharko da eraikin honen barneratzea, honako baldintzetan:


- Programa baten arabera dimentsioduna izan dadin. Topografiaren zailtasuna kontuan izanik, ez ditzan 1.500m<sup>2</sup> lur okupazioa baino gehiago izan.
- Irisgarritasun egokia izan dezala.
- Aparkalekuak izan ditzala inguruan, Arratek orokorrean berezkoak dituen aparkalekuetaz lagunduta.

### **SAHISBIDEA ETA SANTUTEGIAREKIKO INGURABIDEA:**

Jardunaldietan komentatu zen honako proposamena eta berau Andirau elkarteak aurrez ere ekarpena egin zuen bileratan. Ideia saihesbide bat egitean datza, errepide berri bat, Santutegiaren aurretik pasa ez dadin, honela elizaren aurrean eta inguruan peatonalizazioa lortu araziz, Krabelinen hasita eta Koloniaren atzetik pasatuz Azitainetik gora datorren errepidearekin bat egin arte, lurerauzketa garrantzitsuekin eta tunel faltsu batekin.



*SANTUTEGIAREN SAIHESBIDEA. Inguru osoa oinezkoentzako izatea ahalbidetzen du. Tunel faltsu bat eta 7,5m ko altuera duten zehar-ebakiak behar dira. Erabilera anitzeko gunearen eraikuntzarekin lotu gabe eraiki daiteke.*



Plan Berezirako: Honako proposamena xehetasunean aztertu beharra dago, sakonki, kostuak, inpaktua eta ingurunearen beharrak ondo aztertuz, saihesbidearen eta peatonalizazioaren gaiak jorratuz.

### **OLABEKO KANPATIK ARRATEKO GURUTZERA BIDE PEATONALA LORTZEA:**

Olabeko kanpa peatonalki bolatokiarekin lotu, gurutzera doan bidea eta zorua hobetuz irisgarriagoa eginez...proposamen ezberdinak daude honen inguruan eremuaren hobetze peatonala proposatuz. Proposamen ezberdinak eta independenteak dira, baina batzuk bat datoz Olabetik gurutzera lortu beharra dagoela bide peatonal jarraitu baten bitartez.



*Arrateko tailerrean jasotako OINEZKOENTZAKO IBILBIDE PROPOSAMENA*

Plan Berezirako: Ingurua aztertu Olabetik gurutzera lor dadin bide peatonal eta jarrai bat, irisgarria eta errepidearekin bateragarria.

## APARKALEKUA SORTZEA KRABELIN ETA OLABE ZONALDEEN AZPIAN:

Peatonalizatze eremua handitzea aurreikusita, honek aparkaleku berriak sortzea dakar eta horretarako Krabelin eta Olabe azpiak ikusten dira aproposen (atzeko bidea ahalbidetuz eta hobetuz). Dena dela, aipatzen da baita ere, zonalde hau Santutegitik urruti dagoela eta agian ez dela egokiena pertsona heldu edota ezinduentzat...

Plan Berezirako:

- Bidearen hobetze proposamena eta aparkaleku berrien kopuruaren kuantifikazioa.
- Honako konplementatu beharra dago, aparkalekuak atereaz pertsona helduentzat, ezinduentzat, santutegitik gertuago kokatuz.

## OINEZKOENTZAT JARTZEAREN ETA BIDEEN INGURUKO IRITZIAK

*Zein proiektu deritzozu interesgarrien Arraterako?*

*¿Qué proyecto te parece más interesante para Arrate?*

Ez da ezer egin behar,  
DAGOEN BEZALA UTZI  
No hay que hacer nada,  
DEJARLO COMO ESTÁ.

BESTE BATZUK / OTROS

OINEZKOENTZAT JARRI EGUN  
ESANGURATSUETAN eta  
asteburuetan (errepide berririk gabe)  
PEATONAL los DÍAS SEÑALADOS y  
fin de semana (sin nuevas carreteras).

OINEZKOENTZAT URTE GUZTIAN  
sahiesbide berri batekin PEATONAL  
TODO EL AÑO mediante una  
variante de la carretera.

EZ DAKIT. NO SÉ

%32

%26

%23

%12

%7

BESTE BATZUK / OTROS (26%)

- Garbitu sasixak eta ingurua.
- Arrateko behatokia hobetzea eta handitzea.
- Garbi mantendu, umientzako parkia berriztu.
- Aukera aztertu, baina ez lehentasunezko ekintza bezala landaretza babestea.
- Kaletarrei mendiaren onurak erakutsi, baina natura errespetatuz, hau da : lan pedagogikoa.
- Mejora transporte publikoa
- Mejorar el acceso a la cruz cuidando su entorno y libre de arbolado para poder divisar el paisaje.
- Poner en condiciones lo que hay: primero las cosas básicas y luego ir mejorando.
- Limpiar los alrededores no sólo cuando vienen las fiestas.
- Frontón como el de Azitain más bancos en la campa de Arrate, columpios y la zona de la cruz.
- Realización de actividades dentro del santuario.

*Azpiegitura berrien aurretik lan txikiei ematen zaie lehentasuna.*

## OLABEKO KANPAREN HOBETZEA:

Proposamen ezberdinak egiten dira Olaberen inguruan, berau hobetze asmoz, behatokia panel adierazgarri batekin, iturria, mahaiak, pasealeku perimetrala, zuhaiztiak handitzea... Zera ulertu eta garbi ondorioztatzen da, ibilgailuekiko sarrera debekatu egin behar dela orokorrean, egoera puntualak salbu eta Arratetik datozen ibi eta sendak garbitu eta txukundu egin beharra dagoela.

Plan Berezirako:

- Iturri bat egon dadin aukera aztertu eta ahalbidetu.
- Krabelinetik Olabeiko kanpara bide peatonala lortu.
- Egoteko eta behatzek zonaldea lortu.

- Aparkalekuen sorrera lortzea inguruan Krabelin eta Olabe bide azpian.

### **ARRATEKO BEHATOKIAREN HOBETZE LANAK:**

Gurutzearen zona hobetzeko proposamen ezberdinak jasotzen dira; behatoki atondu, panel adierazgarria, sarreraren hobekuntza peatonala...

Plan Berezirako:

- Egoteko eta behatzeko zona lortzea.
- Bide peatonala, irisgarritasuna bermatuz.




*KURUTZE INGURUA. Behatokia egokitu behar da eta irisgarritasuna bermatu.*

### **BOLATOKIAREN HOBETZEA:**

Asolaberri elkartekoek plazaratutakoa eginiko bilera ezberdinetan lan taldearen barruan eta Udalarekin izandako bilera ezberdinetan. Elkartekoek bolatokiaren hobetze lanak eskatzen dituzte bere egungo kokapenean edota erabilera anitzeko eraikin berrian integratuz gero.

Plan Berezirako: Birkokatzearen aukera baloratzea. Bolatokia hobetze lanetan zera aztertu beharko da, inguruarekiko egokitasuna eta itxura estetikoa egokiak izan ditezten.



*Bolatokia hobetzeko Asolaberrik emandako krokisa*

## KOLONIAREN KUDEAKETA PLANA:

Koloniaren izatea positibotzat hartu eta kontsideratzen da. Egun, erabili egiten da, baina batek baino gehiagok dio hobeki kudeatu daitekeela. Zera komentatzen da, duen kokapenagatik ezin duela konpetitu kostaldean dauden koloniek, itxura batean erakargarriagoak baitira. Eraikin erabilera anitzekoa aipatzen da (aurreko puntuan jasota), zerbitzu berri bat izan dadin, konplementagarria eta Kolonia erakargarriagoa eginarazteko.

Memoria historikoaren museoaren inguruan zera aipatzen da (ezen eraikin berean dagoena), esparrua txikia dela eta partaide batzuek bere handitzea edota birkokapena eskatzen dute. Badirudi argitu beharra dagoela Koloniaren eta Museoaren kudeaketa modelo egokiaren inguruan.

### Plan Berezirako:

- Konplementatu egingo da ekintza bezala Plan Berezirako, Koloniaren kudeaketa plan bat, bere okupazioa eta erabilera hobetzeko asmoarekin.
- Honekin batera, diagnostiko bat egin eta aurreratuko da, Kolonia handitzearen beharraren inguruan, jakiteko beharrezkoa den ala ez, eta hala balitz berau erregulatuz.

## 7 Ondorioak

Honako dokumentua, eranskinekin batera jardunaldien emaitzak dakartza, baita Arrateko Plan Bereziaren inguruan luzatutko inkestaren emaitzak, lan taldeak ezagutu ditzan eta kontutan har ditzan, baita prozesu guztian parte hartu dutenentzat. Honela, egindako gainontzeko analisiekin batera, oinarri izan dadin Eibarko udaleko ingurumen komisioarentzat, hasierako onarpen dokumentua idazteko garaian.